



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ITURRIOTZ

ZENBAGARREN SAIOA: 2

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-01	19.40	21:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agurtzane Lekuona, Iñaki Pikabea, Ioritz Aizpuru, Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak:	Euskaraz: 20		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 12		Gizonezkoak: 8	
	<30 urte: 4	31-50 urte: 3	51-65 urte: 5	>66 urte: 8

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Ez da ezer galdetu.
Aurrekontuak 2019	Ez da ezer galdetu.
Auzoa	Anerreko zubiaz galdetu da. Aipatu da lehen bezalako zubirik ezingo dela egin, ibaia dela eta. Gaia judizializatu egin da, ea noren ardura den zubia erori izana. Hala ere, oinezko zubi bat egiteko eskatuko du udalak, konpromiso hori hartua du Udalak (Ibarrekoaren antzekoa). Horrez gain, aipatu da aurreko belasotik jaitsiera bat egina zutela eta errepideko obrakoek txikitu zutela eta esan zitzaizela egingo zutela berriro, baina ez dutela egin. Igerobitxikitik irteera ere oso gaizki dago. Gainera errepidean ibilgailuak oso azkar ibiltzen dira eta arriskutsu dago. Jartzen diren parkartak bisibilitatea kentzen dute. Zubitik errotondara. Igotzekoan ez da ikusten.

Errepide honen inguruan asko hitz egin da, abiadura, sortzen diren arriskuak, oinez gurutzatzeko semafororik ere ez dago.

Ibarren autobusa geratzen da eta ez da deus ikusten. Aipatu da autobusak ordutegiaren baitan ibilbidea egiteko geratu behar izaten duela. Galdetu dute ea ispiluren bat edo jar litekeen.

Ekarpen gunea zikina dagoela esan dute. Ez omen da inoiz garbitzen. Edukiontzia oso zikinak.

Atez ateko ordutegia ez omen dute askok errespetatzen. Esan zaie horrelako arau haustea ikusten dituztenean udaletxera abisatzeko, bandoak edo eskutitzak bidali ahal izateko. Auzotarrek esan dute zorrotzagoa izan behar dela.

Xorrolako geltokia zikina egoten dela aipatu da. Jendea zikina dela, baina garbitzaileek ere ez omen dute garbitzen.

Iturriotzen zintzilikarioak dauden tokiak ez omen dira inoiz garbitu eta lurra zikina dagoela esan da. Auzoa zikina dago orokorrean. Kartxerra pasa beharra auzo guztian. Aipatzen dute kale-garbitzaileak noiz pasatzen diren, ez omen dituzte ikusten. Eta ikusten dituztenean ez omen dute ongi garbitzen.

Hondakin biltzaileak festetan Bidezarrako hondakinak ez omen zituzten jaso. Horrez gain, festetan umeen parkea beirarekin eta zikina egon zen eta ez ziren pasa garbitzera.

Bengoetxea plazako zarranbiloa hautsia dago.

Bengoetxea plazako baranda soldiatu zela aipatu den arren, auzotar batek komentatu du oraindik konpondu gabe dagoela.

Bankoak ere hautsita daude eremu horretan. Aipatu da banko berriak jarriko direla.

Auzoan arratoi asko omen daude. Batez ere elkartearen ondoko terrenoan asko omen daude. Pribatua da baina Udalak jabeari garbitzeko eskatzeko eskatu dute. Izan ere, egoera jasanezina da.

Bestalde, mendian larra asko dagoela aipatu da.

Eskerrak emateko webgunean eremurik ez dagoela aipatu da.

Urkabeko xendak adarrekin tapatuak daude eta oso zikina dagoela esan da. Erantzun da elektrizitate linea dela eta lanak egiten aritu direla eta jarraipena egiten ari dela Udala.

Aldundiko errepidean beste auzoen kartelak badaude, baina Iturriotz auzoarena ez. Lehen bai omen zegoen. Begiratuko dugu eta jarriko dugu.

Oinbusa ongi baloratzen da. Hala ere, erromesak nahastu egin dira kolore berekoak direlako seinaleak. Kolorez aldatzea eskatu dute, Tronpeon nahastu egiten baitira.

Espaindiren aurrean farola dago. Intxaurrondoak tapatzen duenez eta arbola partikularra denez, farola tokiz aldatzeko eskatzen dute. Hondakinak askotan ez dizkiote biltzen iluna dagoelako.

Bide bazterretan batzuetan pardelak azaltzen dira.

Adurizeko espaloian batzuetan kotxeak aparkatzen dira oinezkoen bidea moztuz. Kotxeak aparkatzeko pintaketak egingo direla erantzun da.

Belarra moztean garbitzaileekin koordinatzeko eskatu da. Izan ere, belarra moztu ondoren zikina geratzen da, eta beraz, jarraian kale garbitzaileak pasatzea komeni da.



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,80
bilera ongi gidatu da	8,60
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,60
Auzotar kopurua	5,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,20
Saioa probetxugarria izan al da?	7,67
Egunaren egokitasuna	8,22
Orduaren egokitasuna	8,00
Lekuaren egokitasuna	8,22
Batezbestekoa	7,81